

DIRU-ITURRIAK

Hortz klinika irekitzeko, hainbat material eta baliabide behar ditugu ondorengo ekintzak burutzeko: tratamenduak egiteko, pazienteei atentzio pertsonalizatua eskaintzeko, prebentzio-kanpainak egiteko, publizitatea sustatzeko (gure proiektua ezagutzera eramateko) eta momentuan bertan sortzen diren eragozpenei aurre egiteko. Hori guztietako, diru eta material finantziarioa behar dugu.

Gure finantziario iturri nagusiak ondoko hauek izango dira:

- **Bazkideak:** hainbat entitate desberdin izango ditugu bazkide moduan, modu batean edo bestean, gure proiektuan aportatu dezaketenak. Ondorengo hauek dira gure bazkideak:
 - *Aho eta hortzen higieinarekin lotutako marka komertzialak:* bazkide hauek oso garrantzitsuak dira, higiein material eta produktuak guri helarazteko eta hobetzen ari diren produktuen berri informatzeko. Gainera, erakusgai formatuan hainbat higiein produktu (hortza-pasta, haria, kolutorioa, interproximalak...) emango dizkigute, guk pazientei gomendatzeko eta hauek haien kabuz etxean higiein egokiarekin jarraitu ahal izateko.
 - *Kolaborazio libreak:* nahi duenak, proiektuan parte har dezake, norberak egoki ikusten duen diru-kantitatea aportatuz. Gero badaude beste kolaborazio mota batzuk, publizitatea banatzean datzan.



- **Klinikak:** klinikek gurekiko duten betebeharrak nagusia, material kudeaketaz arduratzea da. Haiei zahar gelditu zaien materiala, bota baino lehen, guri pasako dizkigute eta guk erabiltzeko aukera badugu, egingo dugu. Bestela birziklatuko dugu.



- **Gasteizko udala eta diputazioa:** organo hauen kolaborazioa oso garrantzitsua da, pazienteen kudeaketaz arduratuko direlako. Horretaz gain, klinika antolatzeko eta produktuak zein materialak lortzeko, diru-finantziarioa emango digute, hitzarmen-kolektibo batean adostuta. Gainera, hilabetero behin, klinika, udala eta diputazioa elkartuko gara, proiektuari buruz hitz egiteko: proiektua aurrera doan jakiteko, pazienteen kudeaketa ondo dagoen, diru-finantziarioa adosteko, e.a.



Beraz, gure kostu egitura totalari buruz hitz egitean, hortz klinika bat zabaltzeko, inbertsio handia egin behar da. GKE izanda, proiektu honen ekintzaileek aurreratu behar dute hortz klinikaren hasierako inbertsioa, nahiz eta gerora hainbat entitateen diru-laguntza jasotzea. Horregatik, hasiera-hasieratik ordaindu behar dugun diru-kantitatea, 250.000-300.000€

artean egon behar da. Diru kostu honetan, klinikaren ondorengo zatiak finantziatzeko erabiliko dugu:

- *Lokala*: alokatzeko edo erosteko aukera izanda. Espazio hau langileei eta pazienteei dago bideratuta.
- *Altzairuak, produktuak eta baliabide informatikoak*: nahiz eta klinikak ditugun bazkide moduan, baliabide hauek lortzeko, haiengatik lortzen ez dugun materiala erosi behar izango dugu.
- *Lokalaren gestioa*: klinika legala izateko, aurrera eraman behar diren tramiteak.
- *Langileekiko soldata*: GKE-a bost langilez osatuta egongo da eta hauek guztiek soldata bat jasoko dute hilabetero. Soldata, lan-postuaren eta egindako lan-orduen araberakoa izango da. Orokorrean, langile guztien soldataren batura, 5.000-6.000€/hilabete izango da.

